

FUNTSEZKO ELKARTEAK

Enpresa bat sortzen goazen horretan garrantzitsua da enpresak behar dituen gauza guztiak ondo kudeatuak izatea arrakasta lortu nahi badugu. Horregatik, atal garrantzitsu bat hornitzaileena da; izan ere, gure zerbitzua eskaintzeko funtsezko materiala behar dugu bizikleta elektrikoak gure kasuan hau delako emango dugun zerbitzua Oarsoaldeko 4 herrietan; Oiartzun, Orereta, Lezo eta Pasaian, bizikleta elektrikoak alokatzeko aukera.

Aldez aurretik aipatu dugun bezala, lehenengo pausua bizikleta elektrikoak ekoizten dituzten enpresa bat aurkitzea izango da hori baita enpresaren funtsezko materiala. Horretarako inguruko hainbat enprekin jarri beharko gara harremanetan Caravanas Oiartzunekin adibidez. Lehenengo bizikleten kopuru txiki bat erosiko genieke proiektua martxan hasteko eta erritmo honean doala ikustean bizikleten kopurua handituko genuke.

Era berean, aipatu berri dugun bezala garrantzitsuena bizikletak direla baino ez dugu ahaztu behar horien mantenua ere zaindu behar dela eta bazkideen segurtasunak asko axola gaituela. Hori dela eta, nahitaezkoa izango da gutxienez erabiltzaileak bere kaskoa eramatea baino beti izango ditugu kaskoak erabilgarri eta higiena zaintzeko sare batzuk ipini beharko dira. Bestalde, bizikletak aparkatzen diren lekuan bere mantenurako oinarrizko materiala egongo da, haizagailu bat, eta bestelako erramientak. Honetarako ere Caravanas Oiartzun edo Ciclos Iñaki bezalako enpresen laguntza behar izango genuke.

Horrez gain, material fisikoaz gain, aplikazio bat sortuko dugu bazkideek erabilera independentea izan dezaten. Ondorioz, informatikako enpresaren batekin edo horrelako gauzak lantzen dituzten Goi Mailako heziketako ikastetxeren batekin, jarri gintezke harremanetan, Zubiri Manteo ikastetxearekin adibidez. Interesgarria izango zen, gure proiektua azaltzea eta horren harira talde ezberdinek proposamen ezberdinen ideiak ematea horrela guretzat ere interesgarria izango zen eta aukera guztien hartean hoberena hautatuko genuke.

Hau guztia esan ondoren, azpimarratu behar da hornitzaile hauek askotariko arrazoiengatik direla garrantzitsuak. Alde batetik, proiektua zerotik sortzen dugun horretan lehen baliabideak eskuratzeko garrantzitsua da beste enprekin harremanetan jartzea izan hornitzaile edota bazkide bezela kolaboratu dezaketena. Horrela gure proiektua ezagutarazten lagunduko ziguten.

Ez dugu ahaztu behar herri eremu ezberdinak jarriko ditugula etxola batzuekin hauek bere segurtasun neurriak izango dituztenak. Bertan jasoak egongo dira bizikleten kargadoreak baita beste materialak ere.

Gainera, teknologiaz inguratuta gauden garai honetan garrantzitsua da informatikoki ongi antolatzea. Marketin plan bat egitea eta horretarako marka bezala irudi bat ezartzea. Hau sare sozialen bidez kudeatu beharko genuke, Instagram kontu bat irekitzen adibidez, eta hau enpresaren arriskuak murrizteko erramienta izango litzake.

Bukatzeko, erramienta guzti hauek gure negozio eredua optimizatzeko egindako estrategiak dira. Enpresa bat garen horretan helburua herritarrei laguntzea dela, baino denaren gainera irabaziak lortzea garrantzitsua da inbersio bat egin behar delako eta ondorioz horren irabaziak atera nahi ditugulako.